

# MARIA JAUNGOIKOAREN LORE-ONTZIA

*Doinua: Liurdesko: Ama, maite zaitugu"*

1

Seme-alabok kantari  
pozarren gure amari:  
"Gora gure Andra Mari"  
Ama maite!

2

Sinismenaren argira  
gure Amari begira:  
Hau da pozezko distira!  
Ama maite!

3

Haundia eta apala  
Jaungoikoak egin ahala;  
Zu bai ama mundiala!  
Ama maite!

4

Betiko baietz esana  
zintzoro bete ebana;  
Jaunarena zara dana.  
Ama maite!

5

Nok zer behar dauan adi,  
errukiz begira berari,  
ama beti zerbitzari.  
Ama maite!

6

Jokabidean zuzena  
ta jardunean kemena,  
Jesusen jarrai onena.  
Ama maite!

7

Mariak barru sakona,  
Jaunagaz hartuemonan;  
hortik bere zoriona.  
Ama maite!

8

Bihotzez garbi samurra,  
Jainkoa sortu dan lurra;  
berari gure agurra!!!  
Ama maite!

9

Maitasunezko su-laba,  
erruki-lagun leiala;  
Maria geure Ama da.  
Ama maite!

10

Esanak esanda gero  
ta zuk lagundu ezkeron,  
zerua ederra espero.  
Ama maite!

A. Martzel